

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

621

AGINDUA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.

Aintzat hartuz Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuaren 30., 31., 32. eta 33. artikuluetan xedatutakoa; eta Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak 2020ko urtarrilaren 8ko bileran onartutako dokumentuak ebaluatzeko taulen proposamenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean azaltzen diren dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzea.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 27a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

ERANSKINA

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioaren dokumentazio propioa.

| | |
|-------------------|---|
| Seriearen kodea: | 0200 |
| Dokumentu-seriea: | Babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-espedienteak (BOE) |
| Ebazpena: | Kontserbazio iraunkorra. Bulegoko artxiboan suntsitu ahalko dira eskaerak, justifikatzeko agiriak eta uko egiteak espedientea ebatzi eta bi urtera. |
| Epea: | |
| Erakundea: | Udalak. |

| | |
|-------------------|--|
| Seriearen kodea: | 0201 |
| Dokumentu-seriea: | Alokairuko etxebizitzen esleipen-espedienteak. |
| Ebazpena: | Kontserbazio iraunkorra. Bulegoko artxiboan suntsitu ahalko dira eskaerak, justifikatzeko agiriak eta uko egiteak espedientea ebatzi eta bi urtera; eta, errentamendu-kontratuak bukatu eta bi urtera. |
| Epea: | |
| Erakundea: | Udalak. |

| | |
|-------------------|--|
| Seriearen kodea: | 0202 |
| Dokumentu-seriea: | Udal etxebizitza tasatuen esleipen-espedienteak. |
| Ebazpena: | Kontserbazio iraunkorra. Bulegoko artxiboan suntsitu ahalko dira eskaerak, justifikatzeko agiriak eta uko egiteak espedientea ebatzi eta bi urtera; eta, salerosketa-kontratu pribatuak eskriturak sinatu et gero. |
| Epea: | |
| Erakundea: | Udalak. |

| | |
|-------------------|---|
| Seriearen kodea: | 0203 |
| Dokumentu-seriea: | Udal etxebizitza tasatuen besterentze-espedienteak. |
| Ebazpena: | Kontserbazio iraunkorra. |
| Epea: | |
| Erakundea: | Udalak. |